

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

9.1.KOMUNIKAZIO KANALA

Gure komunikazio-kanalak hainbat bide desberdinen bidez gauzatuko dira, bezero potentzialekin harreman zuzena eta etengabea izan dadin. Gaur egungo komunikazio kanal onenak izango dira telefono bidezko kontaktuak, posta elektronikoa, webgunea eta sare sozialak. Horretaz aparte, albiste-buletinak eta kotxetako publizitatea ere erabiliko ditugu gure zerbitzuaren ikusgarritasuna hobetzeko. Bezero potentzialekin lehen kontaktua ordezkari baten bidez egingo da, eta horrek gure zerbitzuak eskoletan aurkeztuko ditu, aurretik landutako informazioarekin. Marketin-kanpaina bat ere martxan jarriko dugu, gure zerbitzuak sustatzeko eta zabaltzeko. Marketin-kanpaina horretan, webgune ofizial bat sortuko dugu, non zerbitzu guztiak modu argi eta errazean azalduko diren, adibideekin eta azalpenekin lagunduta. Web orriaz gain, sare sozialetan iragarkiak jarriko ditugu, gure aplikazioaren abantailak eta funtzionalitateak erakusteko, kolorez eta marrazkiekin arreta erakarri. Marketin-zuzendaria izango da kanpaina guztiaren antolatzailea, eta horren bidez ez dugu beste pertsona batzuekin lan egin beharko.



9.2. BANAKETA KANALA

Gure aplikazioa banatzeko, ez da beharrezkoa enpresa banatzaile bat kontratatzea, izan ere, aplikazioa linean dago eskuragarri eta horretarako plataforma egokiak erabiliko ditugu. Banaketa zuzena izango da, Internet bidez, eta aplikazioa gure webgunean edo denda digitaletan, hala nola Microsoft Store, Google Play Store eta App Store, eskuratu ahal izango da. Aplikazioa zuzenean deskargatu ahal izango da, eta horrek erraztu egingo du bezeroek eskuragarri izatea gure zerbitzuak, guztiz linean eta muga geografikorik gabe.



9.3, SALMENTA KANALA

Salmenta kanala online izango da, gure aplikazioa deskargatzeko guneeetan egongo baita eskuragarri: Microsoft Store, Google Play Store eta App Store. Horretarako, aplikazioaren lizentzia bat eskuratuko dugu, eta lizentzia horren bidez aplikazioaren erabilera baimentzen da. Eskoletarako eskaintza bereziak egongo dira, eta horien bidez ikasleei aplikazioaren deskargak eta erabilera ahalbidetuko zaizkie, beren profilak sortzeko eta ikasgelako edukietara, liburuei eta aurkezpenetara sartzeko. Gure aplikazioa online salduko da, eta horrek aurrezten ditu salmenta kostuak, klik bakar batekin bezeroak

iristeko aukera ematen digu, hala nola mugitzea edo logistikaren beste pausuak saihestuz. Horrela, salmenta-prozesua errazagoa eta azkarragoa izango da, eta eskolak aplikazioa linean deskargatzeko aukera izango dute, guztiz automatizatuta eta kostu eraginkorrean.